



AKTEA/09

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2023-03-21)**

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2023-03-21 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
Hasiera-ordua:	08:10
Amaiera-ordua:	08:13
Alkate-Presidentea:	ABAROA CANTUARIENSE ARITZ
Batzordekideak:	PLATAS ARENAZA M. IDOYA ZUMETA GARRO ALAZNE LEGARRETA ERKIAGA IBON ZUMETA GARRO KEPA
Bertaratu ez direnak:	LEIZAOLA ZULUETA MAITANE
Idazkaria:	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000C082200F2S1S4F7W012

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 21/03/2023
 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 21/03/2023
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/03/2023 09:59:27

DOCUMENTO: 20230788514

Datea: 21/03/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidea: Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2023-03-14 TGB (08)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Mendiluz udal hilerrian hutsik dauden lursailen emakida esleitzea.
- 4.- Umea zaintzeko lanaldiaren murrizketaren aldaketa onartzea.
- 5.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 6.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaiza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2023-03-14 TGB (08)

Bertaratutako batzarkideek 2023ko martxoaren 14ko 08/2023 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- MENDILUZ UDAL HILERRIAN HUTSIK DAUDEN LURSAILEN EMAKIDA ESLEITZEA.

Xedea

Mendiluz udal hilerrian hutsik dauden lursailen emakida esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko urriaren 18ko Tokiko Gobernu Batzarrak, hilerriko hutsik dauden emakida esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea erabaki eban.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000C082200F2S1S4F7W012

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 21/03/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 21/03/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/03/2023 09:59:27

DOCUMENTO: 20230788514
Datea: 21/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Bigarrena: Enkantearen deialdia 2022ko azaroaren 25eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan.

Hirugarrena: Kontratazio mahaiak, 2022ko abenduaren 28ko batzarrean emakida esleitzeko proposamena onetsi eban.

Laugarrena: Proposatutako esleipendunak emakida eskuratzegaitik eskainitako kopuruak ordaindu dabez 2023ko urtarrilaren 4ko datan, espedientean ageri dan legez.

Argudioak

Lehenengoa: Herri Administrazioen Ondarea arautzen dauen 33/2003 Legearen 86. eta 93. artikulua eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen dauen 1372/1986 Errege Dekretuaren 3. eta 78.1 artikulua hartu dira kontuan.

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. Atalaren arabera, ahalmena alkateari jagoko, oinarrizko aurrekontua ez dalako egungo udal aurrekontuko baliabide arrunten %10 baino handiagoa. Halanda be, 2022ko ekainaren 16ko 2.037 zenbakidun Alkatetza Dekretuz, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrengan delegatu zan.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Mendiluz udal hilerrian hutsik dauzen lurren emakida era honetan esleitzea:

- Arantzatzuko Ama 7 kaleko hilobiaren emakida, ***992**R NAN zenbakidunari esleitzea 6.751.- eurotan.


- Beti Sorospeneko Andra Mari 18 kaleko hilobiaren emakida, ***612**H NAN zenbakidunari esleitzea, 6.556.- eurotan.

BIGARRENA: Erabagia interesdunei jakinaraztea, jagokozan ondorioetarako.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, interesdunei emakiden tituluak emoteko eta hilerriaren kudeaketarako Bermeoko Udalak daukan erregistro publikoan jagokozan inskripzioak egiteko agindua emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo O soko Bilkuran erabagiaren barri emotea.

4.- UMEA ZAINTEKO LANALDIAREN MURRIZKETAREN ALDAKETA ONARTZEA.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000C082200F2S1S4F7W012

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 21/03/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 21/03/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/03/2023 09:59:27

DOCUMENTO: 20230788514
Data: 21/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Xedea

Umea zaintzeko lanaldiaren murrizketaren aldaketa. ***912**E NAN zenbakidun langilearen eskaria. 2023ko martxoaren 1etik aurrera, lanaldiaren murrizketa handitzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2017ko uztailaren 1etik aurrera, umeen zaintzarako lanaldiaren murrizketaren eskaera onartu zen G O U P Batzordean.

Bigarrena: Zaharren egoitzako erizainen txandak honakoak dira: Goiz bi, arratsalde bi, gau bi eta gero lau egun libre. Horrela beti.

Hirugarrena: ***912**E NAN zenbakidun langileak, umeen zainketarako lanaldiaren murrizketa eskatu zuen, eta 2017ko uztailaren 1etik aurrea % 41,5ean egiten du lan, hurrengo lan txandekin: gau bi lanean eta gero 8 egun libre.

Lauugarrena: 2023ko otsailaren 14an, lanaldiaren handitzearen eskaera aurkeztu zuen, arratsaldeko txandak murriztuta eta hurrengo lan txandekin: goiz bi lanean, egun bi libre, gau bi lanean eta lau egun libre. Bere laneko portzentaia, % 71era handituko da.

Bosgarrena: G O S saileko arreta zuzeneko arduradunak aldeko txostena eman du.

Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 56. artikulua honako hau ezartzen du:

56. artikulua.- Adin txikikoak edo ezindu fisikoak edo psikikoak zaintzeko lizentzia

1. Hamabi urte baino gutxiago dituen ume bat edo soldatadun jarduerarik egiten ez duen ezindu fisiko edo psikiko bat bere kargura daukan pertsonalak bere lanaldia heren batean edo erdian murrizteko aukera izango du, lanaldiaren hasieran edo amaieran, langile publikoak nahi duen moduan; langilearen ordainsariak zati proportzionalean murriztuko dira, antzinakotasunari dagokiona ere bai. Zortzi urte edo gutxiago dituen ume bat edo soldatadun jarduerarik egiten ez duen ezindu fisiko edo psikiko bat bere kargura daukanak bere lanaldia gutxienez 1/8 eta gehienez erdian murrizteko aukera izango du, ordainsaria zati proportzionalean murriztuz.

2. *Legezko zaintza ez da bateragarria izango murrizten den ordutegiaren barruan egindako soldatapeko beste edozein jarduerarekin.*



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C082200F2S1S4F7W012

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 21/03/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 21/03/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/03/2023 09:59:27

DOCUMENTO: 20230788514

Fecha: 21/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



3. Behar bezala arrazoitutako salbuespenezko egoera jakin batzuk kenduta, lizentzi hau hamabi hilabeteko epeetan emango da; lizentzia emateko arrazoiak asko aldatuz gero, langile publikoak lanaldi murrizketa aldatu ahal izango du eta lanera itzuli baino 15 egun lehenago, Erakundeari horren berri eman beharko dio.”

Bigarrena: Langileari dagokio ordutegia zehaztea, beti ere zerbitzuaren antolaketa-beharrizanak kontuan hartuz, zerbitzuak kalterik izan ez dezan.

Hirugarrena: Enplegatu publikoaren oinarrizko Estatutuaren testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako errege-dekretuaren 48. artikulua honako hau ezartzen du:

“h) por razones de guarda legal, cuando el funcionario tenga el cuidado directo de algun menor de doce años, de persona mayor que requiera especial dedicación o de una persona con discapacidad que no desarrolle actividad retribuida, tendrá derecho a la reducción de su jornada de trabajo, con la disminución de sus retribuciones que corresponda...”

Laugarrena: Halaber, emakume eta gizonezkoen berdintasunerako 3/2007 Legearen hamazortzigarren xedapen gehigarrian honako hau ezartzen da:

“g) El funcionario que, por razones de guarda legal, tenga a su cuidado directo de algun menor de doce años, persona mayor que requiera especial dedicación o a una persona con discapacidad que no desempeñe actividad retribuida, tendrá derecho a la disminución de su jornada de trabajo...”

Bosgarrena: Lan-merkatuaren erreformarako premiatasunezko neurriei buruzko 3/2012 Legearen Lehenengo xedapen gehigarriko 2. atalean xedatzen du:

*“5. Quien por razones de guarda legal tenga a su cuidado directo algun menor de ocho años o una persona con discapacidad que física, psíquica o sensorial, que no desempeñe una actividad retribuida, tendrá derecho a una reducción de la **jornada de trabajo diaria**, con la disminución proporcional del salario, entre, al menos un octavo y un máximo de la mitad de la duración de aquella...”*

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

BAKARRA: Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen hitzarmeneko 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, ***912**E NAN zenbakidun langileak bere lanaldiaren murrizketa handitzerako egindako eskaera onartzea, arratsaldeko txandak murriztuta eta hurrengo lan txandekin: goiz bi lanean, egun bi libre, gau bi lanean eta lau egun libre. Bere laneko portzentaia, % 71era handituko da, erabaki hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera.



Sinadurea eta data



5.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.


6.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orrri oinean sinatzailea eta data

	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E7000C082200F2S1S4F7W012</p>	<p style="text-align: center;">Sinadurea eta data</p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 21/03/2023 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 21/03/2023 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/03/2023 09:59:27</p>	<p>DOCUMENTO: 20230788514</p> <p>Datea: 21/03/2023 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
--	--	--	--

